

## **DIRU-ITURRIAK**

*Gure diru iturri ohikoena ordainketa bakarria izango litzateke, hau da, erosleek behin bakarrik ordaindu beharko digute, baina bestetik ordainketa errepikakorrek ere izango genituzke, bezeroren batek maileguan ordaindu nahiko balu. Azken hauek harpidetza gisa hileroko egingo litzazkigukeen ordainketak izango lirateke, babesleak izan litezke, edota gure orrialderako harpidetza aktiboa duten gure bezeroek egingo luketen hileroko ordainketa. Gure diru sarrerako ehunekoak hauek izatea aurreikusten dugu.*

*Salmentak: %75*

*Diru-laguntzak: % 15*

*Zerbitzuak: % 10*

*Lehen esan dugun moduan, gure bazkideei kuota txikiak kenduko zaizkie, baina horren ordainetan gure publizitate objektuak oparitan jasoko lituzkete, hainbat zozketa eta sari antolatuko ditugu, gure bezeroentzat. Harpidetzaz gain, beste diru sarrera nagusi bat publizitatea izango litzateke, aurretik esan bezala, hainbat publizitate akordio egingo ditugunez, diru iturri bat izango da. Ondoren, gure diru sarrera nagusia guk saldutako haguak izango direnez, bolumenaren araberako prezioa aplikatuko genioke gure edozein bezerori, hau da, zenbat eta gehiago erosi, orduan eta deskontu handiagoa izango du.*

*Beraz, ondorio moduan esan dezakegu gure enpresak ordainketa bakarreko eta errepikakorreko sarrerak izango genituzkeela. Baina ez da hori bakarrik, izan ere hainbat metodo bilatuko ditugu gure diru sarrerak sortzeko, publizitatearen edo harpidetzaren bitartez lortuko ditugunak.*

